



IKUSKIZUNETARAKO ALDI BATERAKO EGITURAK



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IKUSKIZUNETARAKO ALDI BATERAKO EGITURAK



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales

Argitaraldia: 2015eko apirila

Ale-Kopurua: 500 ale

© OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
Dinamita bidea, z/g, 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)

Internet: www.osalan.euskadi.eus

Argitaratzailea: OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
Dinamita bidea, z/g, 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)

Fotokonposaketa: Esda Fotocomposición y Fotomecánica, S.L.

Inprimaketa: Esda Fotocomposición y Fotomecánica, S.L.

L.G.: BI-647/2015



AURKIBIDEA

1. KONTZEPTUA ETA ARAU-ERREFERENTZIAK.....	7
2. ERAIKUNTZA-LANAK?	9
2.1. BAI, ERAIKUNTZA-LANAK dira.....	10
2.2. EZ dira ERAIKUNTZA-LANAK	12
3. LAN-ARRISKU BEREZI BATZUK	14
3.1. Aireko linea elektrikoak ukitzeko arriskua.....	14
3.2. Zamak jasotzeko lan-ekipamendu mugikorrek muntatu beharreko osagaiak erabiltzeko arriskua	15
3.3. Lanak goialdeetan egitean dauden arriskuak.....	17
3.4. Osagaiak erortzean sortutako arriskuak.....	17
3.5. Gehiegizko ahaleginak egiteko arriskua	17
3.6. Maila berera eta maila desberdin batera erortzeko arriskua	18
3.7. Klimatologia-baldintzen ondoriozko arriskuak	18



1. KONTZEPTUA ETA ARAU-ERREFERENTZIAK

Engungo kultura eta aisiaren esparruan, azken urteetan nabarmen egin du gora eskaintzen diren ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren aukerak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren azaroaren **10eko 4/1995** Legeak halakotzat hartzen dituenak aintzat hartuta.

Ikuskizun publikoak: antolatzaileek edo haien kontura aritzen diren artistek, kirolariek edo egileek eskainitako antzezpen, erakusketa, jarduera edo proiektio bat ikusteko jendea biltzen duten ikuskizunak.

Jolas-jarduerak: erakunde antolatzaileak bere lokalak edo zerbitzuak eskainita jendea biltzen duten jarduerak, edo erakunde horrek antolatu-tako aisialdi eta jolas-ekitaldietan parte hartzeko eginak.


Horren ondorioz, gero eta ugariagoak eta asko-tarikoagoak dira muntatzen diren metalezko egiturak: agertokiak, harmailak, karpak, etab. Aldi baterako egiturak dira, muntatu ondoren beti desmuntatu behar baitira. Beraz, aldi guztiak hartu behar dira kontuan, arriskuak ebaluatzean eta prebentzioko neurriak antolatzean.

4/1995 Legearen 15. artikulua aldi baterako instalazioak ditu hizpide:

1. Ikuskizunak edo jolas-jarduerak egiteko erabili nahi diren instalazio edo egitura behin-behinekoak, garraiagarriek edo desmuntagarriek, Udalak, prozedura berezi eta labor baten bitartez, emandako lizentzia beharko dute aurretik.

Gainera, kontuan izan behar da ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren arloan indarrean dagoen araudiaren mendeko ikuskizunak egiten diren leku, esparru eta instalazioetan antolatzen diren ikuskizun eta jolas-jarduerari larrialdiko egoerak eragin ditzaketen jarduerak egiteko zentroak, establezimenduak eta aretoak **Autobabesteko Euskal Arauk** dituen xedapenak ezarriko zaizkiela, betiere, ezaugarri hauek badituzte:

- **Toki itxietan**: "Eraikin itxiak: 300 lagun edo gehiago barne hartzeko edukiera, edo 28 metroko edo gehiagoko husteko garaiera dutenak". Instalazio edo egitura behin-behinekoak, eramangarriak, desmuntagarriak edo sasoi baterakoak: 300 lagunetik gora hartzeko edukiera dutenak.





- **Aire zabalean:** Oro har, 10.000 lagun edo gehiago hartzeko edukiera duten tokiak.

Autobabesteko Plana prestatzea, ezartzea, mantentzea eta berrikustea **jarduerako titularraren** erantzukizuna da. Planaren edukiak, larrialdietako egoeretan egin beharreko jarduerak nabarmentzeaz gain, aurrez, arriskuen azterketa eta ebaluazioa jaso, eta arriskuei aurrea hartzeko eta kontrolatzeko neurriak hartu behar ditu.

Egin nahi den jardueraz **bestelakoa den** eta Autobabeserako Euskal Arauaren ezarpen-arloan sartutako jardueren katalogoak I. eranskinean jasotzen duen **jarduera baterako baimena** duten zentro, establezimendu, instalazio edo aretoetan aldi baterako jarduerak egiteko, **aldi baterako jardueraren antolatzaileak** Autobabeserako Plan Osagarria prestatu eta ezarri beharko du, jarduera berriari ekin aurretik.

- UNE 76-501-87 Egitura osagarriak eta desmuntagarriak. Sailkapena eta definizioa.
- UNE-EN 13814 Aldi baterako egiturak. Karpak. Segurtasuna.
- UNE-EN 15619 Kautxuz edo plastikoz estalitako ehunak. Aldi baterako egituren segurtasuna (dendak). Denda eta antzeko egituretarako estalitako ehunentzako zehaztapenak.
- UNE-EN 13814 Parke eta jolas-parkeetarako makineria eta egiturak. Segurtasuna.

UNE arauak borondatez aplikatzen diren agiri batzuk dira, eta, legez beharrezkoak izan daitezzen, legeak haiei jarraiki egin behar dira, edo nahitaezkoztat jo behar dira indarreko lege-xedapenetan.

Azaldutako arau ugarien bidez, erabiltzaileen segurtasuna bermatu nahi da gehienbat, baina agiri honetan zehatz aztertuko ditugu aldi baterako egiturak (karpak, harmailak, agertokia, etab.) muntatzen/desmuntatzen dituzten langileek behar bezala babesteko kontuan izan behar dituzten alderdiak.

Lan horiek egiten dituzten langileen segurtasuna eta osasuna hobeto babesteko, esku hartzen duten agente guztiek ondo ezagutu behar dute araudia, eta prebentzioa ezinbestez sartu behar da parte hartzen duten enpresen hierarkia-maila guztietan.



2. ERAIKUNTZA-LANAK?



- **1627/1997 Errege Dekretua, eraikitze-lanetan bete beharreko segurtasun eta osasuneko gutxieneko baldintzak ezartzen dituena.**

I. eranskina.

Eraikuntza-lanen edo ingeniari-tza zibileko lanen zerrenda ez oso sakona:

d) Aurrez fabrikatutako osagaiak muntatzea eta desmuntatzea

- **Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutu Nazionalaren Gida Teknika, eraikuntza-lanetan dauden arriskuak ebaluatzeko eta horiei aurrea hartzeko:**

d) Aurrez fabrikatutako osagaiak muntatzea eta desmuntatzea

Era berean, ***honelakoak sartu behar dira idatz-zati honetan: agertokiak (kontzertuak, jendaurreko jarduerak eta bestelakoak egiteko), zezen-plazak, tamaina handiko berotegiak... muntatzeko eta desmuntatzeko lanak, betiere, lan horiek eraikuntzako industriari dagokion teknologiarik erabiliz egiten badira.***

- **92/57/EEE Zuzentaraua ulertzeko eta ezartzeko nahitaezkoa ez den jardunbide egokien gidan.**

48. adibidea: Jarduera hauek eraikuntza-lantzat har daitezke:

- erakusketak egiteko egiturak muntatzea,
- aire zabaleko jaialdietan ikusleentzako eserlekuak jartzea.



2.1. BAI, ERAIKUNTZA-LANAK dira

Sustatzaileak (*persona fisiko edo juridiko honen kontura egiten baita obra*) behar bezala egiaztatuko du sustatuko dituen jarduerak **eraikuntza-lantzat** hartzen diren (1627/1997 Errege Dekretua).

Aldi baterako egiturak muntatzeko, gehienetan ez da proiekturik prestatu beharko.

A. Sustatzailea:

1. Lan-arriskuen prebentzioa hasieratik aintzat hartzeko, informazioa jaso beharko du lana egiteko arriskuei eta prebentzioko neurriei buruz, eta, ildo horretan, ondo kontuan izan beharko ditu kokalekuaren ondoriozko arriskuak (hodiak, aireko linea elektrikoak, eremuaren ezaugarriak, etab.) eta hainbat enpresa eta/edo langile autonomo batera egoteak sortutako arriskuak. Alderdi horiek kontuan izango ditu eraikuntza-lana betetzeko behar diren lan-prozedurak zehaztean.
2. Lana zuzentzeko, koordinatzeko eta betearazteko arduraren izango duen pertsona edo pertsonak zehaztuko ditu.
3. Enpresa batek baino gehiagok, edo enpresa batek eta langile autonomoek, edo langile autonomo batzuek esku hartzen badute, segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailea izendatuko du lana egiten den aldirako.
4. Behar den informazioa emango dio kontratistari, eta obran egin beharreko lanen plangintzan prebentzioa sar dadin zainduko du.
5. Behar diren datuak emango dizkio kontratistari, lantokia zabaltzeko jakinarazpena egin dezan, eta hori egiteko betebeharra bete den egiaztatuko du.
6. Obraren prebentzioko jarduerak kudeatzeko kontratistak prestatutako dokumentua gainbegiratuko du, eskumena duen teknikari baten bidez, lanaren koordinazio egokia bermatzeko.

B. Kontratista (*persona fisiko edo juridiko honek konpromisoa hartzen du kontratu bidez, sustatzailearen aurrean, bere edo beste baten giza baliabideak eta baliabide materialak erabiliz lan guztiak edo zati bat betetzeko proiektuari edo kontratuari jarraiki*):

1. Obraren prebentzioko jarduerak kudeatuko ditu, eta azpikontratatu dituen langile autonomoen eta enpresa azpikontratisten jarduerak koordinatuko ditu.
2. Hori kudeatzeko, dokumentu bat prestatzea gomendatzen da, arriskuak zehazteko tresna gisa; bertan, ezar daitezkeen prebentzioko neurriak finkatu behar dira, kontratistaren mendeko langile guztiak sartuta (berarenak, enpresa azpikontratistenak, berak kontratatutako autonomoak eta azpikontratistek kontratatutakoak).

Agiri hori prestatzeko, informazio hauek beharko ditu: sustatzaileak emandakoa (*lana betetzeko arriskuei eta prebentzioko neurriei buruzko informazioa,*



kokalekuaren ondoriozko arriskuak (hodiak, aireko linea elektrikoak, eremuaren ezaugarriak, etab.) eta hainbat enpresa eta/edo langile autonomo batera egoteak sortutako arriskuak aintzat hartuta), enpresa azpikontratistek emandakoa (laneko arriskuen prebentziorako plana, arriskuen ebaluazioa eta dagozkien plangintzak) eta langile autonomoek emandakoa (obran bete beharreko lan-prozedura).

Larrialdietan bete beharreko neurriak ere sartuko ditu.

3. Enpresa azpikontratistei eta langile autonomoei behar bezala jakinaraziko dizkie ezarriko dituen koordinazioko neurriak, adibidez, berak prestatutako agirian haiei dagozkien zatia emanda.
4. Lantokia zabaltzeko jakinarazpena egingo du.
5. Laneko arriskuen prebentziorako araudiak enpresaburuari eskatzen dizkion betebeharrak.
6. Informazioa eta prestakuntza emango dizkie bere langileei, laneko segurtasun- eta osasun-arloan hartu beharreko neurriei buruz.
7. Prebentzioko baliabideak zehaztuko ditu.

Sustatzaileak bere plantillako langileekin zuzenean betearazten badu lan osoa edo lanen zati bat, edo langile autonomoak kontratatzen baditu zuzenean lan osoa edo lanaren zati bat egin dezaten, orduan, kontratistatzat hartuko da.

Dokumentu-euskarri bat zehaztu beharko litzateke, obrako segurtasuna eta osasuna kudeatzeko neurrien jarraipena egiteko (kontratistak prestatutako agirian ezarritakoak).

C. Azpikontratista (*pertsona fisiko edo juridiko honek konpromisoa hartzen du kontratu bidez, kontratistaren aurrean, lanaren zati bat edo instalazio batzuk egiteko, lanen betearazpena arautzen duen proiektuari jarraiki*):

1. Kontratistari behar bezala jakinaraziko dizkio obran egin beharreko jardueri lotuta dauden arriskuak, eta arrisku horiek ezabatzeko edo gutxitzeko hartu behar diren prebentzioko neurriak, enpresa-jardueren koordinazioari buruzko informazioa nabarmenduta.
2. Kontratistak obran prebentzioa kudeatzeko prestatutako agirian ezarrita dagoena bete eta betearaziko du.
3. Laneko arriskuen prebentziorako araudiak enpresaburuari eskatzen dizkion betebeharrak.
4. Informazioa eta prestakuntza emango dizkie bere langileei, laneko segurtasun- eta osasun-arloan hartu beharreko neurriei buruz.

D. Langile autonomoa:

1. Obran jardutean, obran prebentzioa kudeatzeko agiriak ezarritakoa bete beharko du, eta, ildo horretan, kontratatu duen enpresak eta betearazpen-aldiko segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaileak emandako jarraibideak bete beharko ditu.



2.2. EZ dira ERAIKUNTZA-LANAK

Aldi baterako egitura metalikoak muntatu/desmuntatu bitartean, ohikoa izaten da **enpresa desberdinetako langileak lantoki berean** egotea, eta, beraz, bereziki, 171/2004 Errege Dekretua nabarmendu behar da, Lan Arriskuen Prebentziorako Legeak 24. artikuluan finkatutakoa enpresa-jardueren koordinazio-arloan garatzen duena.

A. Bildutako enpresaburuek, hau da, *lantoki berean batera suertatzen diren enpresaburuek*, elkarlanean jardun behar dute, eta hori informatzeko betebeharraren bidez bideratu behar da. Jarduerak hasi aurretik eta aldaketak egiten direnean, informazioa emango da, benetakoa, gaurkotua eta aski eman ere, jarduerak dituen eta lantokian dauden beste enpresetan eragina izan dezaketen arriskuei buruz, hain zuzen, jarduerak batera egitean larriagotu edo aldatu ahal diren arriskuei buruz. Idatziz egitea gomendatzen da, baina arrisku larriak edo oso larriak direnean baizik ez da nahitaezkoa.

Lantoki berean batera gertatzen diren enpresa eta langile autonomo guztiek elkarlanean aritzeko betebeharra dute.

Lantokian batera gertatzen diren enpresaburuek egoera horren ondorioz eta edozein larrialditan izandako lan-istripuen berri emango diote elkarri.

1. Jasotako informazioa kontuan izan beharko dute (enpresaburu titularraren jarraibide gehiago, halakorik bada), lantokian egingo diren jarduerak dituzten arriskuen ebaluazioa egiteko edo aldatzeko, eta, era berean, prebentzioko jarduera planifikatzeko.
2. Behar diren koordinazioko baliabideak hartuko dituzte, eta horien berri emango diete beraien langileei.
3. Bateratu suertatzeak eragindako arrisku berriak jakinarazi beharko dizkiete beraien langileei, bai eta enpresaburu titularraren jarraibideak ere, halakorik bada.

B. Enpresaburu titularra, *hau da, lantokia eskura jartzen eta kudeatzen duen enpresaburua*:

1. Ez du langilerik jartzen:
 - Bere lantokiak dituen arriskuak jakinaraziko dizkie batera suertatutako enpresaburuei, hain zuzen, kontratatutako eta azpikontratutako enpresek bertan egindako jardueretan eragina izan dezaketenak, eta, horrez gain, arriskuei aurre egiteko hartu behar diren prebentzioko neurriak adieraziko dizkie. Kokalekuaren ondoriozko arriskuak ere bai (hodiak, aireko linea elektrikoak, eremuaren ezaugarriak, etab.)
 - Larrialdietan bete beharreko jarduerak.

Adibidez: Udal batek ikuskizun bat antolatzen du udal-titulartasuneko esparru batean. Udalak enpresaburu titular gisa jardungo luke.

Bere langileak erabili, beste enpresa batzuk kontratatu, edo bi modalitate horiek nahas litzake batera.

2. Bere langileak lantokian daude:

- Informatzeko betebeharra du, bertan bildutako gainerako enpresek bezala.



- Bere lantokiak dituen arriskuak jakinaraziko dizkie batera suertatutako enpresaburuei, hain zuzen, kontratatutako eta azpikontratutako enpresek bertan egindako jardueretan eragina izan dezaketena, eta, horrez gain, arriskuei aurre egiteko hartu behar diren prebentzioko neurriak adieraziko dizkie.
- Larrialdietan bete beharreko jarduerak.
- Lantoki berean batera suertatzeak eragindako arriskuei aurre egiteko jarraibideak.
- Koordinatzeko baliabideak finkatzeko ekimena.

C. Enpresaburu nagusia, hau da, bere jarduerako lantokian lan edo zerbitzu bat egiteko beste enpresa batzuk kontratatzen edo azpikontratitzen dituen:

1. Elkarlanean aritzeko betebeharra du, bertan bildutako gainerako enpresek bezala.
2. Gainera, enpresaburu titularra bada (batzuetan hala izango da, eta besteetan ez), aurreko paragrafoko informazioa eman eta jarraibideak bete beharko ditu.
3. Zaintzeko betebeharra:
 - Idatziz egiaztatzea: kontratatutako lan eta zerbitzuetarako arriskuen ebaluazioa eta plangintza egitea. Langileei informazioa eta prestakuntza emateko betebeharra betetzea. Kontratak nahitaez eskatu beharko die azpikontratei enpresaburu nagusiari emateko.
 - Enpresek Lan Arriskuen Prebentziorako Araudia betetzen duten zaintzea.
 - Enpresen artean koordinatzeko bideak egiaztatzea..
4. Enpresaburu titullarrak lantokian langilerik ez badu edo aldi berean enpresaburu titularra eta enpresaburu nagusia bada, koordinatzeko bideak ezartzeko ekimena.

D. Koordinatzeko bideak

Batera gertatzen diren enpresek informazioa eta jakinarazpenak trukatzeko, aldizkako bilerak egitea, segurtasun- edo osasun-batzordeak –edo, bestela, prebentzioko ordezkariak– bilerak batera egitea, jarraibideak ematea, prebentzioko neurri zehatzak batera ezartzea, enpresako prebentzioko baliabideak aurrean egotea, eta koordinazioaz arduratuko den pertsona bat edo gehiago izendatzea.

Hurrengo kasuetako bi edo gehiago batera suertatzen direnean, azken hori lehentasuneko izango da: araei jarraiki arriskutsuak diren edo arriskutsuak izan daitezkeen jarduerak edo prozesuak, jardueren elkar-eraginak kontrolatzeko zailtasuna, bateraezinak diren jarduerak aldi berean egin daitezkeen saihesteko zailtasun berezia, batera gertatzen diren langileen eta enpresen kopurua edota jarduera-motak eta lantokiko ezaugarriak direla-eta dauden zailtasun bereziak.

Enpresa bakoitzak dagozkion betebeharrak hartuko ditu bere gain, 171/2004 EDri jarraiki, betetzen duten mailaren arabera –titularra, nagusia, bildutakoa den–.

Bi kasuetan, lan-arriskuen prebentzioak ikuskizuna sortzen den unetik azaldu behar du, aldi guztietan egon dadin lortzeko, eta arreta handia izan behar da lantoki berean hainbat enpresa batera gertatzen direnean, behar bezala koordinatuta egon daitezen.



3.LAN-ARRISKU BEREZI BATZUK.

Era askotako egiturak daude, eta arrisku bereziak ditu haietako bakoitzak: garraibidetik osagaiak deskargatzea, instalatzea eta muntatzea, eta, gero, desmuntatzea eta garraibidean sartzea. Kasu bakoitzean hartu beharreko prebentzioko neurriak arriskuaren ebaluazioaren ondoriozkoak izango dira, eta ondo kontuan izango dituzte egitura bakoitzaren berezitasunak, batez ere, fabrikatzaileek eta muntatzeko planek ezarritakoa –halakorik badago–.

Jarraian agertzen diren arriskuek ez dute zerrenda sakona osatzen, kasu batzuk besterik ez dira, eta ez dira ezinbestez garrantzitsuenak.

3.1. Aireko linea elektrikoak ukitzeko arriskua.

Gogoan izan ez dela zuzenean ukitu behar deskarga elektrikoa izateko; hurbil egoteak ere eragin dezake deskarga, arku elektrikoa dela-eta. Horri dagokionez, zenbat eta handiagoa izan tentsioa, orduan eta aukera gehiago arku sortzeko.



Osagaiak muntatzeko lanetan aireko linea elektrikoak badaude eta ezin badira desbideratu edo ezin bada hornidura eten, garabiko atalek ez dituzte kable elektrikoak zuzenean ukitu behar, ez hurbil egon behar ere, eta, horretarako, hainbat osagai jarri beharko dira, lan egiteko gune seguruak ondo mugarriztatzeko (adibidez, balizatze-portikoak, pantailatzeak, oztopoak langunean).

Lanean aritzen diren pertsona guztiei argi jakinarazi beharko zaie linea elektrikoa dela-eta dagoen arriskua, eta, horretarako, hitzaldiak egin eta kartelak jarriko dira, etab.




3.2. Zamak jasotzeko lan-ekipamendu mugikorrek muntatu beharreko osagaiak erabiltzeko arriskua.

Erabilitako materialen dimentsioa eta pisua dela-eta, kargak altxatzeko lan-ekipamenduak erabili behar dira, eta, beraz, hainbat arrisku sortzen dira, adibidez, ekipamenduak iraultzea, garraiatutako kargak erortzea, garraiatutako kargen kolpea hartzea edo zapaltzea, edota jasotzeko osagarriak kaketzeko edo askatzeko lanetan langileak erortzea.

Osagaiak husten, biltzen eta manipulatzeko diren arloetan, lanak zuzenean egiten ari diren langileak baizik ez dira egongo.

Erabiltzen diren lan-ekipamenduak egokiak izango dira egin beharreko eginkizuna betetzeko. Materialak altxatzeko ekipamendu egokia (edo egokiak) hautatzeko, gehienbat faktore hauek izan behar dira kontuan:

- jaso beharreko karga;
- masa, forma, grabitate-zentroa eta kargaren presio-puntuen eskuragarritasuna;
- hasieran karga non jarrita dagoen eta altxatu ondoren non jarri beharko den;
- altxatzeko ekipamendua zein ingurumen-baldintzatan erabiliko den; eta
- eskuragarri dauden langileak, eta haien ezagutzak, trebakuntza eta esperientzia.



Segurtasun-kisetarik gabeko kakoa



Materiala altxatzeko ekipamenduak eta osagarriak zuzen erabili beharko dira, eta haien karga eta egoera berrikusiko da, fabrikatzailearen jarraibideak betez.

Altxatzeko osagarri bat hautatzean, ondo kontuan izan behar da 1995eko urtarrilaren 1etik aurrera Makinen Zuzentarauan jasotako baldintzak betetzen dituzten altxatzeko osagarriak baino ezin direla merkaturatu eta zerbitzuan jarri.

Jasotzeko osagarri bat hautatzeko, gutxienez faktore hauek izan behar dira kontuan:

- jaso beharreko kargaren masa;
- kargaren grabitate-zentroa non dagoen;
- jaso beharreko kargaren ezaugarriak;
- kargari presio egiteko edo lotzeko baliabideak;
- eta jasotzeko ekipamenduarekin lotzeko euskailua;
- lokailuaren egitura;
- jasotzeko osagarriak jasango dituen ingurumen-baldintzak;
- jasotzeko osagarriaren egoera.



Jasotzeko osagarriak giro egoerian biltegitratuko dira, herdoilak jan ez ditzan, eta usteldu edo hondatu ez daitezten.

Erabili aurretik eta biltegian sartu aurretik, egiaztatu egin beharko da, ondo begiratuta, jasotzeko osagarriak behar bezala dauden. Horrez gain, urtero, edo erabiltzeko baldintzak direla-eta hala behar bada sarriago (aire zabalean edo etengabe erabili badira, etab.), sakon egiaztatu beharko du gaitasuna duen pertsona batek.



3.3. Lanak goialdeetan egitean dauden arriskuak



Egiturak eratzean goialdean dauden aldi baterako lan-ekipamenduetatik lan egin behar izaten da, eta hor beti izaten da arriskua, maila desberdinetan erorikoak izateko.

Lan-ekipamendurik egokienak hautatuko dira, lan-baldintza seguruak bermatzeko eta izateko, eta talde-babe-sei emango zaie lehentasuna, babes indibidualen aurretik.

Esku-eskailera oso gutxitan erabiliko da goialdeko lanpostu gisa: arrisku gutxi izateagatik lan-ekipamendu seguruagoak erabiltzea justifikatuta ez dagoenean, eta kokalekuen ezaugarriak direla-eta enpresaburuak horiek ezin alda ditzakeenean.

Soka bidez sartzeko eta kokatzeko teknikak ere oso gutxitan erabiliko dira: arriskuaren ebaluazioaren arabera lana segurtasunez egin ahal bada, eta, gainera, beste lan-ekipamenduren bat erabiltzeko justifikazio-rik ez badago.

3.4. Osagaiak erortzean sortutako arriskuak

Portikoak edo egiturako beste atal batzuk jasotzean, atal horiek inguruko langileen gainera erortzea gerta liteke. Portikoak, bertikalki jarri ondoren, ondo finkatu beharko dira, eta gainerako langileak ez dira alde horretan egongo lanak egiten diren bitartean.

3.5. Gehiegizko ahaleginak egiteko arriskua

Kargak manipulatzeko, gehiegizko ahaleginak egiten dira batzuetan. Hortaz, langileei jarraibideak eman behar zaizkie ondo erabil ditzaten, bai eta informazio eta prestakuntza egokia ere, behar bezala manipulatzeko.



3.6. Maila berera eta maila desberdin batera erortzeko arriskua

Ordenarik eza eta kokalekuen ezaugarriak direla-eta –aire zabalean, eta seinaleekin markatu gabeko edo babestu gabeko osagaiak eta zuloak dituen zoru aldakorren gainean berramatuta–, erorikoak izan daitezke maila berean. Agertokiaren atzealdea babesik gabe egoten da, eta, beraz, bertan, maila desberdin batera eror daiteke.

3.7. Klimatologia-baldintzen ondoriozko arriskuak

Lan hauek aire zabalean egiten dituzten langileek aurkako klimatologia-egoerari egin behar diote aurre: euria eta muturreko tenperaturak, hotz eta bero aldetik. Neurri egokiak hartu beharko dira arrisku horiek gutxitzeko, alde batetik, langileei informazio eta prestakuntza egokia emanez, eta, bestetik, baldintza horietan lan egiteko denboraldia gutxituz eta atsedenaldiak sartuz. Arreta berezia egingo zaio haizeak egituretan izan dezakeen eraginari, egiturak behera erortzeko arriskua kontrolpean izateko.

